

SAIO KLINIKO OROKORRA – BASURTUKO UNIBERTSITATE OSPITALEA
ERREUMATOLOGIAKO ZERBITZUA

AURKEZLEA: OLAIA FERNANDEZ BERRIZBEITIA DK.
MODERATZAILEA: JOSE FRANCISCO GARCIA LLORENTE DK.

2014KO MARTXOAREN 21A, 8:15. GORBEIA EKITALDI-ARETOA (GOBERNU PABILOIA)

AURREKARI PERTSONALAK

39 urteko emakumea. Medikamentuekiko alergia ez.
Dispepsia, mastitisa, 4 haurdunaldi (horietako bat galdu zuen). Omeprazola hartzen du beharrezkoa duenean.

GAUR EGUNEKO GAIXOTASUNA

Azkeneko 4 hilabeteetan lunbalgia, ezkerreko aldakako eta izterrendoko mina sentitu du emakumeak eta mina ezkerreko hankara hedatzen da. Aurreko egunetan sukarra izan du (38°C).

MIAKETA FISIKOA

Pazientea herrenka dabi, mina dauka aldaka mugitzen diogunean, eta ezkerreko Fabere maniobra positiboa da.

MIAKETA OSAGARRIAK

Odol analisisian: fase akutuko erreaktanteak altu daude, Chlamydia trachomatis IgM positibo ahula (IgG negatiboa). Gernu eta odol hazkuntza negatiboak. PPD positiboa eta interferoin negatiboa.